



◆ ERREMONTA

Barrenetxea finalean ikusteko sarrerak opari, Kronikan

Kronikara deitzen duten lehenengo 5 pertsonak bina sarrera lortuko dituzte, opari, larunbatean Galarretan jokatuko den Binakako Txapelketako finala ikusteko. Finala jokatuko dute Barrenetxea IV hernaniarrak eta Urrizak, Ezkurra eta Olazarren aurka. ||

❖ TRAFIKOA

Urumeako autobia moztuko dute gaur eta bihar gauean

Gaur gaueko 21:00etatik goizeko 06:00etara guztiz itxiko dute Mandazubi eta Hernani erdigunea lotuneen arteko zatia, eta Martindegiko lotunetik Hernaniko irteerako zatia. Bihar gauean berriz, karril bakarra itxiko dute, ordutegi berean. ||

❖ SAHARA

Janari bilketa, urtarrilera arte

Ikastetxeetan ostegunera arte bilduko dira Saharara bidaltzeko janari eta premiazko artikuloak. Biterin berriz, urtarrilaren 18ra arte jasoko dira. ||

❖ LITERATUR SOLASALDIAK
Solasaldia, gaur

Gaur, 19:30etan liburutegian, *Marina Suredaren amets urrutak* liburuaz ariko dira. Solasaldia euskeraz izango da. ||

❖ NATZA

‘Barrura begiratzeko leihoak’ berriro

Arazo teknikoak izan zirela eta, bertan behera geratu zen ostiralean *Barrura begiratzeko leihoak* dokumentalaren emanaldia. Hori horrela, barkamena eskatu dute antolatzaileek, eta adierazi dute abenduaren 26an dokumentala berriro jarriko dutela. ||

ZAZPI EKITALDI AURTENGO BERTSOLATAN - (ABENDUAK 19 - URTARRILAK 4)

Gutiziak bertsoan, gutiziak ahoan...

Lau bertsolarik kantatuko dute ostegunean, 20:00etan, Basque Culinary Centerren: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Jon Maia eta Agin Rezola. Sarrerak salgai, 20 euroan, Kixkal, Aralar eta Tripontzin.

KUTIXIA edo gutizia bila dabilenak bertsoan eta aho-sapaiean sumatuko du ostegunean, Basque Culinary Centerren egingo den Bertso Gutizia saioan. Luntx batekin bukatuko da, bertso saioarekin hasia. Lau bertsolari oholtzan: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Jon Maia, eta Agin Rezola. Gai jartzen: Unai Agirre.

Saio berri-berria dakarkigu aurten ere Bertsolatak, aspaldiko ekitaldi sail haundieneko programaren barruan. «Saioa bera gutizia bat izango da», dio Iraulio Panttalone bertso eskolak, prentsa oharrean. «Eta bestelako gutizia eta aho-gozagarriak dastatu ahal izango dira ondoren BCCko goiko solairuan, bertako ikasle eta lantaldeak presatatutako dastatze berezian». Elkarlanean antolatu dute BCCk eta Bertso Eskolak.

Sarrerak salgai

Sarrerak salgai daude 20 euroan, Hernaniko Kixkal, Ara-



Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña, etziko bi protagonista.

lar eta Tripontzi tabernetan, eta baita BCCn bertan ere: 902 540 866.

Lau sarrera opari, Kronikan
BCCko bertso eta gutizia saiorako sarrerak doan ere lortu daitezke; Kronikara deitzen duten lehenengo 2 pertsonak bina sarrera emango zaizkie.

Zazpi ekitaldi Bertsolatan
Umeen saioarekin hasiko da aurten Bertsolata, bihar bertan. Biteri bete egingo da, urtean zehar ikastetxeetan bertsoa ikasten ari diren ikasleekin. Kantuan izango dira Unai Gaztelumendi eta Ane Labaka. Bertso idatzizko saria ere emango da. ||

BERTSOLATA**Abenduak 19, Umeen Saioa:**

Unai Gaztelumendi eta Ane Labaka. Biteri. 14:30.

Abenduak 20, Bertso Gutiziak:

Egaña, Lujanbio, Maia eta Rezola Basque Culinary Centerren. 20:00. Sarrerak 20 euroan: Kixkal, Aralar eta Tripontzin. Eta BCCn: 902 540 866.

Abenduak 24, Olentzeroa baserriz baserri: Gabon Eskea, Gudarien plaza-tik Zikuñaga eta Osifagara. 15:30.

Abenduak 28, Elkarrekin Arteko

Txapelketa: Hernaniko 10 soziedade bertsoan. Sagastialden. 21:00.

Abenduak 29, Historiaren Hari Zahar

Horri: Bertsoak musikaz lagunduak, aurkezpen emanaldia. Kamio, Agirre eta Atxega. Biterin. 19:30. 5 euro

Abenduak 31, Urte Zaharretako

Erronda: Gudarien plazan abiatuta, kale jira. 18:00.

Urtarrilak 4, Bertso Jaialdia: Sebastian Lizaso, Igor Elortza, Hodei Barroso, Iñaki Zelaia, Iker Zubeldia eta Eli Pagola. Biterin. 19:30. Sarrerak salgai,

7 euroan: Tripontzi, Kixkal eta Aralar.

AUZOKONPOSTA

Urtarrietik aurrera, auzokonposta

Argibideak aste honetan jasoko dituzte 24 familieek. Urtarrilean hasiko dira auzokonposta egiten.

AUZOAN konposta egiten hasiko dira urtarrilean, Hernaniko 24 familia. Kaxkoan bizi diren 24 familia dira, eta Atzieta kalean jarriko zaie konposta egiteko lekua. Lekua prest daukate, Atzieta kaleko betiko parkean, eta orain zai daude konpostagailuak

noiz ekarriko.

Aurretik, konposta nola egin behar den ikasi beharko dute, eta aste honetan dituzte ikastaroak, gaur bertan hasita. Egun bateko ikastaroa da, eta bertan jasoko dituzte argibideak, eta konposta egiteko gida bat.

Auzo gehiago ere bai

Horiek izango dira lehendabizikoak, baina ez bakarrik, pixkanaka auzo gehiagotan egin nahi baita auzokonposta. Guztira 104 familieak interesa azaldu dute auzokonposta egiteko. Beraz, beste 80 familia behintzat zai dau-

de konposta-lekuak noiz eta non jartzen zaizkien. Hernaniko Udalak jakinarazi du pixkanaka auzo guztietara iritsi nahi dutela. Lehendabiziko pausoa Kaxkoan izan da. Hurrengo, seguru asko, Txantxillako auzo berrian izango da. ||



Hernanik
kronika

Egin zure erosketak Hernanin!
HERNANI BIZIRIK!

Prezioa
1€

GABONETAKO
ZOKETA
2012

BERRIAK-EKO MERKATARI ETA OSTALARIEK JARRITAKO SARI EZBERDINAK: **JAKIAK, JANTZIAK, AFARIAK...**

ERRIFAK SALGAI 1 €-AN **BERRIAK**-EKO ESTABLEZIMENDUETAN ETA **HERNANIKO KRONIKAKO** BANAKETA PUNTUETAN

Zozketa abenduaren 20an, Biteri kultur etxean

AZKEN ERRIFAK SALGAI!!



TELEFONOAK

● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 092 ● **DYA:** 943 464622
● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalarri anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
✚ **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Correa** Perkaiztegi 8 - 943 336022 ● **Gauetz:** **Etxebeste** Elkano 9 - 943 552087

EGURALDIA

GAUR Goizean zerua nahiko argi egongo da, baina lainotzen joango da. Goizeko tenperatura bajua izango den arren, epeltzera egingo du. Min.7°/Max.16°

BIHAR Zerua hodeitsu egongo da goizean, baina pixkanaka ostarreak irekiko dira. Hegoaldeko haizea zakartu egingo da egunean zehar. Min.10°/Max.17°

(euskaltel)



Judoka hernaniarrak txapeldun, Gipuzkoako txapelketan. Aroa Ferreirok, Nagore Eizagirrek, Maialen Iribarrenek eta Zuriñe Urdangarinek osatutako taldeak lortu zuen lehenengo postua, larunbatean Hernanin jokatu zen Gipuzkoako Taldekako Judo Txapelketan. Mutilen taldeak ordea, ez zuen lortu podiumera igozte. Bestalde, alebinen mailako Gipuzkoako Txapelketarako sailkapen txanda jokatu zen, eta parte hartu zuten hernaniar guztiek lortu zuten sailkatzea. Igandean berriz, maila haundiko judokak ikusteko aukera izan zen, senior mailako Euskadiko Txapelketan. ||

SANTO TOMAS 2012

Postuak jartzeko aukera

Santo Tomas eguna ostiralean izango da, eta postuak jartzeko eskaera egin daiteke oraindik, udaletxean.

SANTO Tomas eguna ostiral honetan izango da, eta egun osoan zehar izango da aukera Hernanin, txistorra dastatzeko. Herriko talde eta elkarteek postua jarri nahi badute, udaletxean eskaera egin behar dute, eta oraindik bada izena emateko aukera.

Txistorra jateko aukera, ostiralean

Hainbat taldek Santo Tomas eguna ospatuko dute ostiralean. Batetik, Goiz Eguzkik edota Gazte Txokoak. Bestetik, Gibelalde, Lizeagako auzo elkarteak ere, postua jarriko du, 18:30etatik 21:00etara, Larramendi kaleko 15 zenbakian.

Era berean, herrian barrena postuak jarriko dituzte, Herrira mugimenduak eta



Sorgintxulon, igandean egin zuten txistor-jatea.

CD Hernani taldeak.

Eskaera egiteko aukera

Izena emateko epea bukatu bada ere, Hernaniko Udalak

adierazi du oraindik badagola aukera, Santo Tomas eguneko postua jarri nahi dutenentzat, eskaera egiteko. ||

ARRAUNA - GIPUZKOAKO FEDERAZIOAREN SARIA



Neskek estropada irabazi zuten atzo

Hernaniko arraunlariek Gipuzkoako Federazioaren Saria jokatu zuten atzo Tolosan eta neskek estropada irabazi zuten infantil-kadete mailan. Nesken bigarren taldeak, berriz, hirugarren postua lortu zuen. Mutil infantilek ere hirugarren postua lortu zuten eta mutil kadeteek, bederatzigarrena. Batel Liga hasi aurretik jokatu zen atzoko estropada eta beste bat ere jokatuko da abenduaren 29an. Elorrrain izango da. ||

BITERIKO IKASTARDAK

Azken eguna, bisuteria eta abalorio ikastaroan izena emateko

Gaur bukatuko da epea, bisuteria ikastaroan izena emateko. Ikastaroa asteartetan emango da, euskeraz. ||

UDALA

2013ko Inauterietako kartel lehiaketako irabazlearen berri, gaurko Batzordean

Kultura eta Turismo batzordea bilduko da gaur, 17:30etan, 1go bilera gelan (4.pixua). Bi gairi buruz hitz egingo dute: bi kultur talderen dirulaguntzen justifikazioez eta 2013ko inauteriez. Azken honen barruan, kartel lehiaketaren emaitzaren berri emango da. ||

KORRIKA

Korrika 18ko erropa salgai Hernanin

Hernaniko AEK euskaltegian (Larramendi kalea 11) Korrika 18ko erropa erosteko aukera dago, ostegunera arte. Goizez, 11:00etatik 13:00era, eta arratsalde, 16:30etatik 18:00etara. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



II URTEURRENA Francisco Zabalo Amorena

2010eko abenduaren 18an hil zen, 91 urterekin

-Goian Bego-



Franciscoren senitartekoei urtebetetze meza eskaini nahi diogu eta bertara gonbidatzen zaituztegu ezagutzen zenuten guztiak.

Urteurreneko meza, LARUNBATEAN, arratsaldeko 19:00etan, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.
Hernanin, 2012ko abenduaren 18an

IRAGARKI MERKEAK

2 kotxerentzat garajea alokatzen dut, Garcia Goldarazen. Modu onean. Deitu: 686 246 770 Atikoa salgai Kale Nagusian. 176.000 €. Gazteentzat aproposa. 48 m2 erabilgarri. Bizitzera sartzeko. Deitu: 652 740 831. Posta: lursaski@gmail.com
ETXEO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
Iniigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)



GURE
GURE ETA ZURE TOPAGUNEA



EGUNEKO MENUA 11€

**ASTEAZKENAK
PINTXO - POTE**

ARDOA EDO GARAGARDOAREKIN

**OSTEGUNAK
PINTA EGUNAK**

PINTA KAÑAREN PREZIOAN

Argarain kalea, 2 behea - 20120 Hernani - Tel: 943 33 25 29